

Urki eta haritz gehiago

Langaurren landatu dituzte ▶ 6



Tolosa Goxua azoka berezia izango da gaur Trianguloan

ESKAINTZA ▶ Herriko gozogileek berrikuntza ugari aurkeztuko dituzte; 09:00etan hasiko da azoka ▶ 4-5



Poesia errezitaldi bikaina Leidorren

TOLOSA ▶ Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, poesia errezitaldia egin zuten atzo Leidor aretoan Tolosako Laskorain, Orixe eta Hirukide ikastetxeetako eta Baionako Bernat Etxepare Lizeoko ikasleek. Bigarren edizioa izan zuen atzokoan ekimenak, eta gazteek maitasunari, bakardadeari eta herriari buruzko olerkiak errezitatu zituzten, musikari talde polit baten laguntzarekin. L. MONTES ▶ 2



JAIONE ASTIBIA

Bibitako txapela zain du Oinatz Bengoetxeak

LEITZA ▶ Ruben Beloki lagun duela, bihar jokatu du final handia pilotari leitzarrak Donostiako Atano III. pilotalekuan ▶ 7

LIZARTZA ▶

Insalus Saria proban parte hartzeko aukera dute gaur afizionatuek

15:30ean abiatuko da; Lehendakari Txapelketarako puntuagarria da ▶ 6



31
aretoaren
inaugurazioko kontzertu erraldoia Lekunberrin
Martxoak 19an 22:00etan
Orishas taldearen disko berriaren aurkezpena eta artista gonbidatua
Sarrerren salmenta: 12 € aurretik-15 € leihatilan
Iruña: Typo dendak, Xalbador Megadenda / Lekunberri: Amalur taberna
Tolosan: Oskarbi kafetegia / Zizurkil: Aurrera taberna / Donostia: Bilintx

KULTURA ▶

Hitzak eta beste...

Tolosako Laskorain, Orixe eta Hirukide ikastetxeetako eta Baionako Bernat Etxepare Lizeoko ikasleek poesia errezitaldia egin zuten atzo, Leidor aretoan



Kuskizun bikaina eskaini zuten atzo Leidor aretoan poesia errezitatzeko jardun zuten ikasleek. L. MONTES

OLERKIAK ▶

'BAZTER EZKUTUA'

Bada munduan bazter ezkutu bat / inork zapaldu gabekoa. / Bonben hotsik entzuten ez dena, / izurriterik izaten ez dena, / ekaitza, metereologia kontu huts dena, / ez haserre eta hondamendi iturri. / Badakit badela bazter hau, / gauero, / ene gogoak, / bertara bidaiatzen duelako. **Egilea.** Maddi Sarasola. **Ikastetxea.** Orixe.

'TEKNOLOGIA'

Dena azkarregi doa / presaka, larri eta estu, / ez ote dugu ba, geroa / orainarekin nahastu? / Gure bizi beharrean, / bizi behar dela ahaztu? / Denok aurrerapenak nahi ditugu, / etorkizuna, noski, aztertu / etorriko zaigunari / bide berria erraztu. / Horrexegatik, denbora aurrera doa, /

teknologiaren esku (...)

Egilea. Olivia Lopetegui. **Ikastetxea.** Hirukide-Eskolapioak.

'NUNBAIT HAN...'

Urdintasuna, edertasuna, lasaitasuna / uharte bat mundutik baztertua / itsaso erdian galdua / munduaren puntan den tokia / zeru eta itsasotik banaezina / ametsetako leku polita / Asiako ozeano lasaian / uraren sakontasun barean / naturaren haserre piztu da. / Tsunamiaren uhainekin batera / memento honetan joanak dira: / askatasun eta bakartasun sentimenduak / Uhainek, haien haserre erakutsiz, / eta gizakiak behingoz ihardetsiz / haurren irria eraman dute. / Itsasoak ez zuen abisatu! / Oraingoan nor den buruzagi badakigu /

dena berekin eraman du / isla ttipi galdu hori / gure salbamendu izan bedi / uharte ahantziari arimak irentsiak / hilen malkoak itozten dira / mugarik gabeko itsasoan / itxurazko poza hilkorrak / infernu busti hau, / bilakatu da paradisiko bidea.

Egilea. 2 C gela. **Ikastetxea.** Baionako Bernat Etxepare Lizeoa.

IZENBURURIK GABE

Zure xarma, baimenik gabe / nire bihotza sorgindu zuen / maitasunezko pozoia da. / Momentu oro dut pentsatzen / non ote dagoen / zureganako giltza. / Goizero iratzartzen naizenean / errealitate gordinean naiz murgiltzen / ametsetan eraikitako ilusioak / eskuragarri zaizkit bilakatzen... **Egilea.** Nerea Egibar. **Ikastetxea.** Laskorain ikastola.

IRATXE ETXEBESTE

Gazteari sua dario, / gazteak egia dio. / Bihotz barneko sentimenduez nola ez, / bada, gu fio. / Tolosaldean gazte-jai / horra guk ere bildu nahi. / Iparraldeko ta Hegoaldeko garelako denok anai. / Zuzen jaurti dut gezia / hautsi lotsaren hesia, / lehertu da globo ikustezina / ta agertu poesia. Ba bai, poesia agertu da berriro. Galtzaundi Euskara Taldeak, izan ere, poesia errezitaldiaren bigarren edizioa antolatu zuen atzo Udalaren laguntzarekin. Lehenengoan bezala, gazteak izan ziren olerkiak errezitatu zituztenak, hizki bakoitzaren egileak, doinu guztien gidariak. Eta Leidor aretoko eserlekuetatik haien ikuskizuna jarraitzen ari zirenak, berri, helduak, batez ere.

Maitasunari idatzitakoak ziren atzokoan Tolosako Hirukide-Eskolapioak, Laskorain eta Orixe ikastetxeetako eta Baionako Bernat Etxepare Lizeoko ikasle gehienek errezitatu zituzten hitzak. Galdutako, lortutako, urrundutako maitasunei buruzkoak; atsekabez, alaitasunez, saminez kontatzen zituzten musikari talde handi eta saiatu baten laguntzarekin. Itxaropen eleak igortzen zituzten batzuk, «argi dagoen gauza bakarra, / bizitza honetan nahi eta nahi ez / aurrera egin behar dela. / Askotan ez nahi bezala, / baina beti aurrera» ziotenean. Hausmarketarako aukera luzatzen zuten besteek, «sentimendu aldrebesak nabari nituen / baina maitasuna halakoa dela uste dut: / lilurapena, oreka eta kaosa. / Egun batean beste munduan / eta bestean mundutik irten nahian» esaterakoan.

Ahalegin berezia egin zuen aretoko taula gainera igo zirenetako bakoitzak. Musikariak, zuzenekoan jardun beharragatik; olerkien sortzaileek haien sentimenduak jende askoren aurrean zabaldu zituztelako mikrofono aurrera irten zutenek, eta azken horiek horregatik. Hitz eta beste... egiteagatik.

MUSIKA ▶

Keike eta La lengua de trapo Bonberenean

Keike eta La lengua de trapo taldeek kontzertua emango dute gaur, 22:30etik aurrera, Bonberenean. Nabadura anitzeko rocka egiten dute lehenek; «abiadura eta ardatz ezberdinak erabiltzen dituzte kantu berean», esan dute Bonbereneako kideek. Haien hitzetan, berri, oroimena, samina, beldurra, ezinegona, libre pentsatzeko eta amets egiteko bidea dagoela. Nafarroako La lengua de trapo taldekoek Oihuka disketearekin kaleratu dute berriki beren lana; rock-pop-a egiten dute, eta gaztekeraz abesten dute.

MUSIKA ▶

Musika Bandaren kontzertua gaur, dultzainariekin

Tolosako Musika Bandak kalejira eta kontzertua emango du gaur Musika Eskolako Giroarte dultzainari taldearekin batera. 19:00etan Triangulotik abiatuko dira, eta, ondoren, 19:30ean, Plaza Berriari hainbat doinu eskainiko dituzte. Buruhandiek eta erraldoiek kalera irtengo dute, eta erraldoiek doinu horiek dantzatuko dituzte. Zinemako musika eskainiko du Musika Bandak baita ere lehen zatian: *Pink Panther*, *Flingstones*, *Oihanaren liburua*, *El puente sobre el rio Kwai*... Bakarlariek Ifaki Salvador, Patxi San Sebastian, Lierni Muñoz, Igor Arostegui eta Mikel Atxega izango dira.

GIZARTEA ▶

II. Erromeria Herrikoia egingo du Udaberrik

II. Erromeria Herrikoia antolatuko du Udaberri dantzari taldeak gauro. Egurdian dantzari txikiak, Udaberriko ikastaroetara joaten direnak, irtengo dute kalera, eta hainbat dantza eskainiko dituzte kalean zehar. Erromeria, aldi, arratsaldean hasiko da: 18:30erako egin dute hitzordua antolatzaileek plaza Zaharrean, triki-poteoa egiteko. 20:30ean afaria izango da Abastos plazan, eta afalostea Epelde eta Larrañaga trikitilariek alaituko dute. Garai bateko jantziekin joatea eskatu dute Udaberrikoek.

Tak MUSIK

MUSIKA TRESNEN MERKATU TXIKIA

Noiz: Martxoaren 14tik apirilaren 9ra arte
Non: TAK MUSIK Easo 81, Donostia

- Gitarra Elektrikoak, Akustikoak
- Baxu Elektrikoak
- Pianoak
- Bateriak eta Perkutsioa
- Gitarra eta baxua anplifikatzaileak
- Bateriako platerak
- Osagarriak, klasikoko mazo eta makilak, hariak, kableak, zorroko eta abar

Askoz ere merkeago!

ARAMBURU

Salgai (barra), Pisu zoragamia Euskal Herria kalean, Garajea toba aukeran.

Salgai (Tolosa), Pisu igogailuarekin Larrañaga kalean, 112 m², Berriua.

Salgai (Tolosa), Pisu handia Gorosabel 40ean, Garajea aukeran.

Salgai (Tolosa), Pisu igogailuarekin Larrañaga kalean, 30.000.000 pta

Salgai (Tolosa), Lokalkomertziala San Frantzisko pasealekuan 85m².

Alokatzeko (Tolosa), Lokalkomertziala Erremontari kalean.

Alokatzeko (Tolosa), Garajea Pedro de Tolosa kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

Martxoaren 19tik apirilaren 30era

OPORRENGATIK ITXITA

Eskerrik asko eta barkatu eragozpenak

IRUÑA JATETXEA



Batasunaren ilegalizazioaren aurka mobilizazioak Villabonan eta Ibarrran

POLITIKA ▶ Herenegun mobilizazioak egin zituzten Ibarrran eta Villabonan Batasunaren ilegalizazioaren aurka eta datozen EAeko hauteskundeetan ezker abertzaleko alderdiak parte hartzeko eskubidea aldarrikatuz. Villabonan giza-katea egin zuten *Oztopo guztien gainetik, orain Batasuna* lelopean. Ibarrran, berriz, kontzentrazioa egin zuten *Eskubide demokratikoaren alde, ilegalizaziorik ez* lelopean ezker abertzaleak deituta. Kultur Etxearen parean zen hitzordua hasiera batean, baina plazan egin zuten Ertzaintza agertu baitzen Kultur Etxean. Bestalde,

euskal presoak gose greban ari direla-eta atxikimendua azaltzeko gaur egingo dute Fleury-Merogiseko kartzelara martxa, eta atzo hasi ziren Ibarrrako udaltxeko aretoan baraualdiarekin bihar amaitzeko. Gainera, manifestaziorako deia egin dute biharko; 19:30ean irtengo da Ibarrrako plazatik eta amaitu ondoren ekitaldi bereziak antolatu dituzte Ibarrra Herri Ekimenekoek. Izan ere, hilaren 25ean, Eider Ijurko eta Ekaitz Aramendi atxilotu zituztela 3 urte beteko dira eta hori dela-eta bihar egingo dira preso ibararren omenezko ekitaldiak. I. GARCIA/I.TERRADILLOS

LEABURU ▶ EKONOMIA

Iritzi kontrajarriak Mahalako langilearen kaleraketari buruz

LAB sindikatuak «kaleratze maltzurra» izan dela salatu du; enpresak, berriz, «arrazoiak idatziak daudela» azaldu du

NOELIA LATABURU

Leaburuko Mahala enpresako langile baten kaleratzeak bi aldean azalpen kontrajarriak ekarri ditu. Enpresak, batetik, eta kaleratutako langilea afiliatua zen LAB sindikatuak, bestetik, eginiko adierazpenak ez datoz bat.

LABek kanporaketa «maltzurra» izan dela salatu du eta «inolako arrazoirik gabe» burutu dela ere gaineratu du. Enpresaren aldetik ere laister iritsi da salaketa horien erantzuz-

na. Bere esanetan, «egoera ja-sangaitz batera» heldu ziren langile honen jokaera medio; enpresa eta bezeroen arteko kexa eta informazioak ezkuta-tzea edota lan-taldean arazoak sortzea, besteak beste. Kaleratzearen arrazoiak «ondo idatzi-ta» daudela ere erantsi dute, izan ere, «2005eko martxoan bere oporraldia burutu du alde-zuzen aurretik enpresarekin hitzartu gabe».

LABek «bere indar guztiak» erabiliko dituela aurreratu dio Mahala enpresari, langile ho-

rrek bere lanpostua berresku-rra dezan. Halaber, enpresa honetan aurrekariak ere izan di-rela salatu du sindikatuak. «Aurretik haundunaldian zego-en emakume bat era berdine-an kaleratu zuen», esan dute LABekoek. Gai honen harira, enpresak langile hura «haur-dun zegoen beste langile bat ordezkatzeko» kontratatu zute-la argudiatu du, eta «gure lan kontratuak konbenioaren araberakoak» direla eta «langile-kin dugun harremana oso ona» dela gaineratu du.

VILLABONA ▶ POLITIKA

Ertzaintzaren jarrera salatu dute Iratzarren

Zenbait pegatina eta kartel kentzeko agindu zietela azaldu dute ezker abertzaleko kideek

I. GARCIA

Villabonako ezker abertzale-ak Ertzaintzak Iratzar Kultur Elkarteko tabernan «azken egunetan izandako jarrera» salatu du. «Eneko Gorostidiri egindako ongi-etorrian, bizi-lagun batek zarata zela eta abisua eman zuen», azaldu die HITZARI ezker abertzaletik. «Ertzaintza 04:30ak aldera etorri zen eta taberna ixteko eta bertako jendea ateratzeko agindu zuen. Horrela egin genuen eta dena modu onean joan zen». Eguna argitu ondoren Ertzaintza partea egitera joan zela eta taberna barruko ate batean zeuden pegatinak aztertzen hasi zirela azaldu dute. «Horietatik bi kentzeko

agindu zuten», esan dute. Azkeneko preso senideen en-karteladan Ertzaintzak ager-tutako jarrera azaldu dute on-doren. «Baimenik ez gurela esan ziguten. Kamararekin grabatzen aritu ziren eta fur-gonetara berrutik zarata ater-tzen hasi ziren beldurra eragi-teko asmoz».

Azkeneko gertaera asteaz-kenekoa da, ezker abertzale-tik azaldu dutenez: «Ertzai-nak, gainera beti ertzain ber-rak izaten dira, pegatinak kenduta zeuden ikustera sar-tu ziren Iratzar tabernara eta bertan zeuden hiru kartel kendu zituzten. Ondoren, kan-poko taulan zeuden kartelak kendu, bola bat egin eta taber-na barrura bota zuten».

iragarki laburrak ▶

Peoiak. Plaza libreak Hernani, Arrasate, Araman, Errenteria, Antzuola, Zerain, Mendaro eta Villabonan. 943 65 01 93.
Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza

libreak: ikastetxeak, egoitzak, Eusko Jaurilaritza. Informatu. 943 65 01 93
Ostalaritza. Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza libreak: eskolak, egoitzak, Eusko Jaurilaritza. 943 65 01 93 telefonoa.

Eraikuntza. Igeltseroak, peoiak. Plaza finkoak Gipuzkoako udaletan Informazioa doan. 943 65 01 93.
Haur Hezkuntza. 106 plaza gaztelaniaz, 52 euskaraz. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Mantenua. Elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, arotzak... Plaza libreak: erakunde publikoak. 943 65 01 93.
Gidariak. Plaza libreak: udalak, Eusko Jaurilaritza, Aldundia. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Administrazio laguntzaileak. Laster sarrerak udal hauetan: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Añoeta. Informazioa doan 943 65 01 93.

GASTRONOMIA

Asteburua gozo puntuarekin hasteko aukera, Tolosa Goxuarekin

Eskualdeko gozogleek gozogintzaren tradizioari helduta, berrikuntza ugari aurkeztuko dituzte gaur Trianguloan 09:00etatik aurrera; kanpoko hamabost saltzaile ere izango dira azoka berezian

OLAIJA ESKITZABEL

Usain berezia, gozoa, izango dute gaur goizean gozetik Tolosa kanpoko. Tolosa Goxua azokaren IX. edizioa dela eta, aurreko urtean bezalaxe herriko gozogleek askotariko produktuak aterako dituzte kalera. Herriko gozogleek ohiko lekuan utzi eta Trianguloan elkartuko dira pastel, tarta eta askotariko txixtiez inguratuta gerturatu diren kurtositatez pizteko asmoa. 09:00etatik aurrera Trianguloan izango dute gozozaleek hitzordua.

Gozogintza alorrean tradizio ezaguna du Tolosaldeko produktua asko sobera ezagunak dira herriaren zein kanpotarren artean. Urtean zehar, ibetiko produktuen salmenta oso erregularrak dela zehaztu du Gorrotxategi gozoglekiko Iñaki Gorrotxategi. Baitaspen horrekin bat egiten du Eceiza gozogleko Luis Mari Eceizak: «Pastelen salmenta mantendu egiten da urtean zehar baina udaran zertxobait jaisten da».

Urtaro beroak iristearrekin batera, erosileen aukeraketa zertxobait aldatu egiten dela azaldu dute eskualdeko gozogleek. Udaberri eta uda partean, fruituzko tarta freskoak izaten dira erosile gehienaren artean. Hori adierazi du, esaterako, Nieves Sorokak. Salzar gozogleko nagusiak: «Itat-



Askotariko pastelak, tartak, goxokiak... erakutsiko dituzte gaur Trianguloan gozogleek. © zarraga

ta erdi hotzen (limotzkoak, fruituzkoak...) eskuera nabarmen igotzen da temperatura igotzen joaten den heinean». Ogi-goxo okindegiaren turroizko eta limotzko izozki-tarta bihurtzen da Udaran gehien salzen den tarta.

Egoera bereziak gozoak alde batera utzita, eguneroko erosketetan «krusasanak dira gehien salzen direnak» ogi berezian ere gero eta gehiago salzen dira». Labezain okindegi-ko Karlos Agirrebengoa azaldu duenez, Ogi zuria da berriz, Ogi-goxo okindegiaren gehien salzen den produktua.

Zerrenda amaigabea

Herriko gozogleek mizoz prestatu dituzte gaur jendetu-erazkuntzako produktuak; postuetan izango diren produktuen zerrenda oso luzea da: diaz bezala, pastak, zigarrilok, panxineta... eramango dituzte, aipatu du, esaterako, Salzar gozogleko Nieves Sorokak. Orokorrean, eramateko errazak diren produktuak eta tarta sekoak eramango dituzte azaldu du. Hala ere, ez dute orduan, fruituzko tarta eta antzekoak ere eramateko asmoa badugun, dio.

Azoka bereziko postuetan jario motan sailkatu ditu Gorrotxategi gozoglekiko Iñaki Gorrotxategi: «Betiko produktuak,

LUIS MARI EZEIZA
EZEIZA GOZOTEGIA

«Pastelen salmenta mantendu egiten da urtean zehar; baina, udaran zertxobait jaisten dira salmentak»

KARLOS AGIRREBENGOA
LABEZAIN OKINDEGIA

«Opilei dagokionez, kruasana da produkturik salduena; ogi bereziak ere geroz eta gehiago salzen dira»

NIEVES SOROKA
SALZAR GOZOTEGIA

«Tolosa Goxua erakusleho ona da guretzat; iaiz egon ginen lehenengo aldiz eta oso gustura geratu ginen»

IÑAKI GORROTXATEGI
GORROTXATEGI GOZOTEGIA

«Eskualdez kanpokoek betiko produktuak erosten dituzte; inguruko herritarrek, tartaboak edo berrikuntzak»

MARI KARMEN ITZUETA
OGI-GOXO OKINDEGIA

«Guraldi beroarekin gozo gutxiago jaten du jendeak; fruituzko tartak izaten dira udaberrik aurrera eskatuenak»

ASUN GABIRONDO OGI-BERRI OKINDEGIA ETA GOZOTEGIA

«Gure produktuak dastatzea eta ezagutzea da gure nahia»

Tolosa Goxua azoka berezian izango dira estreineko Ogi-berrri okindegiak eta gozoglekiko produktuak. Tolosaldeko lehen-aldiz egon arren, beste hainbat azoka bustitatu dituzte: Madrilen, Seguran... izan dira. Trianguloan produktuak eskaintzen eta ezagutera ematen izango denetako bat da Asun Gabirondo.

Zein produktu aurkeztuko duzue gaur Tolosa Goxuan?
Pastelzko eramango ditugu; lan asko duen produktua da eta gure dendetan duten harrera ezin hobea da. Dagoen eskaerari erantzuteko kilo bako eta kilo erdiko kaxa bereziak ere baditugu; modu trankil batean erosleentzako eramateko erosoagoak izaten dira. Betidanik landu ditugun pastel handiak ere eskaintuko ditugu. Eta hoyalde eta almen- drak tartak.

Horietako batzuk produktu berriak dira, ezta?

Bai; hoyaldeztoko eta almen- drak tartak oran dela hurr- palau hialbete hasi gara lan- tzen eta oso harrera izan dute dendetan.

Oplak ere jarriko dituzue erakusgai.

Kruasanak (txikiak eta handiak) eramango ditugu, masa izan ezik beste gutxi eskuz egiten dugu. Te pastak, merlin- txiak, hasiekin egindako bar- ririkak, hoyalde lazak... ere eramango ditugu.

Aipatu zeintzuk diren Ogi-be- rriko produktuen ezaugarriak.

Produktuen lehengaien eta erabilzen duten makinariaren kalitatez argiparratuko nuke lehendabizi; horretaz gain, ahaz den neurrian lan egiteko modu artesanala dugula eta egunean eguneko produktuak egiten ditugula gertuko nuke.

Zein helburu lortu nahi du



© zarraga

Og-berrik garuko azoka berezian parte hartuz?

Purta harran dugun lehenen- go aldiz denez, gure asmoa burua sartzea da. Ez dute uste esko salduko denik; jendeak gure produktuak dastatzea eta ezagutzea da gure nahia eta horretarako garuko azoka oso baliagarria izan daitekeela pentsatzen dute.

Tolosa Hiriko Komertziala

Comercio de Trianguloa

IX. TOLOSA GOXUA

ARRAZUTZA BUREN LEHIAKETA

09:00etatik aurrera

Tolosa Goxua

09:00etatik aurrera

09:00etatik aurrera

Ogi-GOXO

Okindegi eta Gozotegia

09:00etatik aurrera

Tel. 943 68 32 94

BELLABONA

OGI-BEREZIK BOLLERA

Kale Nagusia, 19

Tel. 943 67 01 11

Tel. 943 67 01 12

BELLABONA

TOLARGI

Tolosako enpresak, Tarta

La luz de Tolosa, Txarre

Pablo Corosabel kalea, 34 B. • TOLOSA

Tel. 943 65 00 16 • Fax: 943 65 00 65

Tel. matutak: 610 44 00 88

E-posta: tolargi@tolargi.com

www.tolargi.com

GORROTXATEGI

Proba itazu Sagardo-pattar eta Txakoli-berririk

Plaza Zerrin, 7 • TOLOSA

Tel. 943 67 07 27

Fax: 943 67 87 80

Gozotegia, konfitegia eta izoztegia

EZEIZA

Telak eta Zigarrilok

Pala Goxual, 31 • Tel.: 943 68 01 01 - San Francisco, 8 • Tel.: 943 68 01 06 • TOLOSA

Juero, 14

TOLOSA

Tel.: 943 67 16 49

DASTATU GURE KALITATEA

Betiko eran prestatuta beti osagai naturalak erabiliz

LIZARTZA ▶ KIROLA

Insalus Saria txirrindulari afizionatuen proba, gaur

Otsabio kirol elkarteak antolaturiko lasterketa 15:30ean irtengo da Lizartzatik

IÑIGO TERRADILLOS
NOELIA LATABURU

Gaur izango da, 15:30ean, Lizartzako XVII. txirrindulari proba, Insalus Saria, alegia. Otsabio K.E.-ak afizionatuen mailarako antolatzen duen lasterketa Lehendakari Txapelketarako puntuagarria izango da eta Lizartzatik bertatik irtengo da, helmuga ere bertan izango duelarik. Aurrekontuari dago-kionean zailtasun asko izan dituztela azaldu dute kirol elkartetik, baina aurten ere azkenean aurrera ateratu da proba.

Ibilbidea, pasa den urtean bezala, eskualdeko hainbat herritan barrena izango da, Tolosan, Alegian, Ikaztegiatan eta Altzon, esaterako. Horrez gain,

ZENBAIT DATU ▶

'INSALUS SARIA'

Eguna. Gaur, 15:30ean.
Antolatzailea. Lizartzako Otsabio K.E.

Ibilbidea. Lizartza, Tolosa, Alegia, Ikaztegieta, Legorreta, Itsasondo, Ordizia, Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta, Alegia, Altzo, Lizartza, Tolosa, Leaburu, Tolosa, Alegia, Altzo eta Lizartza.

Goierriaraino ere helduko da lasterketa: Legorreta, Ordizia eta Itsasondoraino, hain zuzen ere. Oso gogorra dela diote txirrindulariek; ez luzeragatik, igo beharreko mendateenga-



Alfus Tedes taldeko Sergio Bernardok irabazi zuen iaz. D. GIBELALDE

tik, baizik. Hori bai, ospe handia izaten duen proba da Lizartzako Insalus Saria, izan ere, irabazten dutenak profesionalera igotzen baitira, normalean. Antolatzaileak ilusio han-

diarekin azaldu dira. 160 txirrindulari inguruk parte hartuko du eta eguraldia lagun izango omen da; bestalde, antolatzaileek eskerrak eman dizkiete lagundu dutenei.



Etorkizuneko hazia ereinez

ALEGIA ▶ Atzotik aurrera zuhaitz gehiago daude Languarren, San Joan eskolako eta Aralar institutuko ekimenei esker. Bertan elkartu ziren ikasle, irakasle eta gurasoak urkiak eta haritzak landatu zituzten eguerdian. Eguzkiak ere ez zuen ekitaldia galduta izan nahi eta gogor jo zuen goiz guztian zehar. Landaketaren ondoren uimek bazkaldu eta jokatu egin zuten Languarren. Aralar institutukoek berri, *aralarpiadak* antolatu zituzten eskolan, herri kirolekin eta futbol partidarekin. NOELIA LATABURU

IRURA ▶ GIZARTEA

Zaharren biltokiak urteko batzarra egin berri du

Aurreko urtean egindako ekitaldiekin gustura agertu dira; junta berak jarraituko du aurten

I. GARCIA

Izurako jubilatuen elkarteak urteko batzarra egin berri du. 2004an egindako ekitaldien errepasoa egin zuten eta aurtengorako aurreikuspenak zehaztu. Balorazio ona egin zuten, eta junta berak jarraituko du aurten ere lanean. Aurreko urtean, Zaharren biltokiak berak antolatuta, besteak beste, Iratxera eta Ordiziara irteerak eta Tolosaldeko ibilaldia —Gulas Aginaga, Insalus eta Frutas Urkolaren laguntzarekin— egin zituzten. Bestalde, hainbat alditan bildu dira mahai ondoren, oilasko jatea, txistorradak —herriko Inazio Arregiren Elaboreacion Artesanaren laguntzarekin— eta gaztain jateak egiteko. Horrez gain, karta jokoaren lehiaketa antolatu zuten, aurten laister egingo den bezala.

Bere aldetik, Udaleko dinamizatzaileak ere jubilatuekin antolatu ditu hainbat ekitaldi. Alde batetik, eztaba saioak eta Kutzaren bitartez egindako

hitzaldiak. Irteerak ere antolatu ditu, Ezkio-Itsasora, Irunera eta Getariara. Film batzuk ere ikusi dira eta urte bukaeran antzerki emanaldia izan zen Zumarraga eta Urretxutik etorritako jubiato taldeak eskainita. Gabonetako ekitaldien barruan ere ipuin irakurketa egin zuten emakume jubilatuen batzuek herriko haurrei zuzenduta.

Udalak berak ere maiatzeko Aste Kulturalaren barruan ibilaldia eta hitzaldia antolatu zituen eta San Miguel jaietan jubiatoari bazkaria banatu zien.

Aurtengorako ere ari dira Zaharren Biltokitik ekitaldiak antolatzen. Hurrengo karta jokoaren lehiaketa izango da, hilaren 22an. Mahai jokoez gain, toka eta bote lehiaketak egingo dituzte. Bestalde, dagoeneko lotuta daude Kutzaren bitartez aurten egingo diren hitzaldiak. Lehenengo apirilaren 14an izango da eta *Psikologia ezberharren aurrean bizitzeko* izenburua izango du. Zaharren Biltokian egingo dute hitzaldia.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako autobusa: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona. Anb.: 00 69 70**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttipa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Etxebeste, J.M. Gernikako

Arbola 3 (Tolosa). 943 65 10 40

Plaza, M.Elbarren 36 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaldea. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUAN

Leitza. Oialde taberna alokatzen da. Jatetxea aparte alokatzeko aukera. Interesatuak deitu 948 51 02 93 zenbakira.

LEITZA ▶

Iruñeko San Inazio taldea du arerio Aurrerak gaur

Ligako azken bigarren jardunaldia jokatu dute; 3 partidu dituzte berreskuratzeko

J. ASTIBIA

Iruñera joan beharrak da gaurkoan Aurrera futbol taldea, San Inazioaren aurka jokatuzera. Partidua 15:45ean hasiko da.

Liga bukatzeko hau eta beste jardunaldi bat besterik gelditzen ez den honetan, leitzarrak garaipenaren bila doaz, sailkapeneko aurreneko leku horiek ziurtatzeko helburuz eta berreskuratu beharrak dituzten saioetan — bitan elurrerengatik gelditu dira jokatu gabe eta beste batean arbitroek planto egin zutenekoan — lasaixeago ibiltzeko moduan izateko. Hala ere, Baztanen aurka dute azken saioa eta hauek ere hortxe dabiliz buruzburu goiko lekuetan.

LEITZA ▶

2005eko plana eztabaidagai, etziko euskara batzordean

J. ASTIBIA

Euskara Zerbitzuko 2005eko plana izanen dute eztabaidagai nagusi, etzi, hilak 21, 19:00etan Aurrera elkartearen eginen duten euskara batzordean.

Euskararen inguruko inkesta egitasmoa ere, mahai gainean izanen dute.

LEITZA ▶ KIROLA

Oinatz Bengoetxea leitzarrak zain du bibitako txapela

Ruben Beloki lagun duela, bihar jokatuko du final handia Donostiako Atano III.ean



Amazabal pilotalekuan aurkitu genuen, gazteboekin. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Oinatz Bengoetxea leitzarrak, bihar jokatuko du Bibitako Eskuzko Pilota Txapelketako finala, Donostiako Atano III.a pilotalekuan, atzeko koadroetan Ruben Beloki lagun duela. Juan Martinez de Irujo eta Fernandez Goñi izanen dituzte, aurkari. Lau pilotari handi, bi bikote, nor baino nor, txapelketa guztian zehar, partidu oso onak eginez burrukatuta finalera iritsi eta orain, txapeldun izateko azken urratsa eman behar. Hori kantxan.

Eta harmailetan zaletuak. Leitzatik ere hainbat pilotazale

joanen dira. Bengoetxearen jarraitzaile sutsuek ingurua jokatuko dute zalantzarik gabe. Herrian ikusmin handia sortu eta txapela herrian ikusi nahia eragin du berriak. Lagunartean, dendan... nonahi ateratzen da gaia: «Zaila da, baina... irabazteko aukera ere bada!»; «Gogorra izanen da, baina etxe aldera nah!»; Datu bat ematearren, Karrape Irratian egin ohi duten porran esate baterako, 83-k parte hartu dute.

Beraz, igandeko finalerako giroa bero dago eta, atzo ferian batek zioen moduan: «Herriar bat horrelako final batean egoitea, beti da poztekoa, hara!».

OINATZ BONGOETXEA ▶ 2005EKO BIBITAKO TXAPELKETAKO FINALISTA

«Amets bat izanen litzateke lortzea»

Non arkituko eta. Amazabal pilotalekuan topatu genuen Oinatz Bengoetxea, ostegun iluntzean: pilota eskolako ikasleekin lanean, hilean bi astetan aritzen omen dira bera eta Barriola, haiei ilusioa biztuz. HITZA berarekin egon da.

Bibitako txapela zain duzu. Zer moduz zaude?

Ongi. Txapelketa gogorra izan da oso, baina jokoarekin nago. Partidu gogorra izanen dugun arren, irabazten saiatuko gara. **Belokirekin ariko zara. Lagun ona da.**

Bai. Oso ona. Bai pilotari modura eta pertsona bezala ere bai. Ziurtasun handia ematen dit niri bera hor izateak. Partidu asko jokatutakoa da bera. Ni berria naiz eta urduritasun pika

ka batekin hasi nintzen, baina lasai jokatzeke esaten zidan, nire jokoa egiteko. Asko lasaitu nau berak.

Martinez de Irujo-Goñi izanen dituzue aukari.

Oso bikote gogorra eta partidua ere halaxe espero dugu. Irujo handia da; Goñi, berriz, atzelaririk hoberena, ia irabazi egin zuen. Oso bikote osoa da: atzean seguritate eta aurrean esplosibitate.

Eta nola jokatuko duzue? Ez dakigu, baina saiatuko gara atzean dominatzen, Belokiren kolpeaz baliatuz eta gero aurrean bukatzen.

Urduritasun berezirik eragiten dizu partidu honek?

Sekula jokatu dudan partidurik garrantzitsua da, ziur.

Beraz, kezka tiki hori, hor daukat. Baina normala da. Normalean lasai ateratzen naiz kantxara eta hala ateratzea espero dut: gauzak hobeki egiten dira.

Aurreneko parte hartu eta finalera iritsi. Horrelakorik pentsatzen al zenuen?

Ez nuen espero horrelakorik: egin dugunaren erdia ere ez. Beloki oso ona da, baina ez gintuzten faboritotzat jotzen inon. Partiduak irabaziz joan gara, orde, eta konfidantza hartuz eta hobetuz, azkenera iritsi arte.

Bengoetxea VI.a. Zamarik badu abizenak? Aholkurik jasotzen al duzu?

Ez dut gehiegi pentsatzen abizenean. Txapeldun handiak izanak dira. Baina orain beste egoera batean gaude eta nik neronek eta nerontzat egin behar dut lan. Aholkuei dago kienez, beti zer edo zer jasotzen da, baina komeni zaidana

eta gustuko ditudanak hartzen ditut.

Eta zaletuengandik?

Nik uste herriko jendea pozik dagoela. Herriarrentzat polita da, bertako bat finalean egoitea, niretzat ere hala den bezala. Orduan guztiek badute zer esana.

Irabaziko bazenute?

Ilusio handia. Amets bat. 20 urte ditut eta debutatu ondoren lan asko egin dut eta jarraituko dut ere. Baina amets bat izanen litzateke hori lortzea.

Sineskeriarik baduzu?

Ez. **Orduan, irabaziko ez bazenute, zer?**

Pasatu daiteke eta honeraino ailatu ondoren, desilusio pittin bat hartuko genuke, baina ez dugu horretan pentsatzen. Lorpen handia da iritsi izana bera. Txapelketa oso ona egin dugu eta oso gustura nago inolako zalantzarik gabe. ◀

hitza

lagunen
txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketatutako **UZTARTZA** aterpetxe - jatetxean 4 lagunentzako afari eder baten irabazlea:

MILAGROS ITURRIOZ BALDA (IRURA)



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 19a, larunbata ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena 16 hotzena 11

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: bai
Albi: bai

Pagomari: bai
Igaratza: bai

Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurjaritza. Kultura Saila



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...) **943 30 43 46**

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Gazte Topagunea gaur eta bihar Kultur Etxean 16:30etik 20:30era.
Tolosa. II. Erromeria Herrikoia antolatuta du Udaberri dantzari taldeak. Egurdean dantzari txikiak, 18:30ean bilkura plaza Zaharrean, ondoren triki-poteoa, 20:30ean afaria Abastos plazan eta ondoren erromeria Epelde eta Larrañagarekin.
Tolosa. Arrautza budinaren lehiaketa gaur Tolosa Goxua azokan, Trianguloan. Lau pertsonentzako errezeta

aurkeztu behar da 10:00etatik 11:00etara. Irabazleak 150 euro eta oparia jasoko du.
Ibarra. Eukaristi misiolaria, parroki elkarteetan, 19:00 etan, hainbat sinbolo eta espresioaren laguntzarekin.
Ibarra. Gaur bertso-afaria egingo da Xepla elkartearen Hauspoa elkarteak antolatutik. Bixente Gorostidi eta Millan Telleria bertsolariak izango dira bertan. Txartelak Ibarako hainbat tabernatan salgai.
Tolosa. Oargi mendi elkarteak mendi martxa antolatu du Boi haranera (Pirinioak, Lleida), hilaren 24tik 28ra, Aste Santuan. Izen-ematea

637 83 03 80 telefonoan egin behar da.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Luis Mari Nuñezen ikatz eta boligrafo marrazkiak ikusgai izango dira Fronton kafetegian martxoaren 28ra arte.
Tolosa. Ana Jesus Ansorena tolosarraren keramika lanak martxoaren 31ra bitarte daude Saikin tabernan ikusgai.
Tolosa. Matxin Labaien pintore tolosarrak bere lanak jarri ditu ikusgai Lanbroa tabernan eta hila honen amaiera bitarte egongo dira.

Margoak batez ere paisaiak dira, itsasoa, mendia eta herriak.

FESTAK

Berastegi. Urepele elkarteak antolatuta, Gazte Festak: gaur mus txapelketaren finala 15:30ean. Herriko gazteen arteko herri kirolak 18:00etan eta jaietako amaiera emateko Laiotz musika taldearen emanaldia 00:00etan herriko frontoian.

KIROLA

Garziandia txapelketa. Final laurdenak.

11:00etan hasita. Ihenengo partida Mikelperezeta-Zubieta eta Renobales-Bellosa. Ondoren, Berasaluze-Domingez eta Garcia-Moran.
Insalus txirrindulari saria. Lizartatik 15:30ean abiatuta, Otsabio elkarteak antolatuta.

MUSIKA

Tolosa. Keike eta La lengua de trapo taldeen emanaldia Bonberenean 22:30ean.

ZINEMA

Tolosa. *El escondite* Leidor zineman, 19:30ean eta 22:30ean.

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko etzeiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia




URTE ASKOAN

Irune Marino Barkero (Anoeta). Gaur 2 urte. Aita eta amaren partetik, muxu bat.



URTE ASKOAN

Zorionak!!
Familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Aimar eta Ander Zabala Altuna (Amezketeta). Zorionak eta segur horrela. Zortzigarrena ere iritsi da eta. Ebekoen partetik.



EUSKAL PRESOK GOSE GREBAN

Bosgarren eguna. Baina badira bizitza guzian zehar borroka egiten duten gizon emakumeak... Horiek dira ezin bestekoak... Zuek bezala. Animo eta aurrera! Eskualdeko iheslari eta errefuxiatuen izenean.



URTE ASKOAN

Iker Merketegi (Irura). Gaur 3 urte. Hiru muxu ebekoen partetik.



URTE ASKOAN

Zorionak aitona Joxe (Lizartza). Gaur 81 urte. Xabat, Alaitz eta Sheyla.



laguntzailea: **hitza**

Rock kantzerriak
Urtean gunera
triki poteoa
Tonbala
Betizu jaia
Sagardolegia
Bertsolariak
Berbena
Ervaldiak
Trikitilariak
Artisauek
Herri bazkaria...

jaia

korrika bilbon

martxoak 20

ni ere bai

Euskal Herria euskalduntzen

www.korrika.org